

# Bero-beroan

## Koldo Mitxelena Euskarazko Tesi Sariak

EUSKAL HERRIKO Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak aurreneko banatu dituzte Koldo Mitxelena Euskarazko Tesien Sariak. Lau sari eman dituzte. Bost izan behar ziren, baina Ikasketa Teknikoen alorrekoa hutsik geratu da. Giza Zientzien arloko saria Oroitz Jau-regik irabazi du, *Euskararen silaba: egitura eta historia* tesiari esker; Zientzia Experimentalaren arlokoa Francisco de la Hoz Mendezek, *Denbora finituan singularitasuna garatzen dituzten zenbait fluxo geometrikoen zenbakizko azterketa* lanarekin; Osasun Zientzien arlokoa Ekaitz Agirregoitiak, opioideek eta kannabinoideek espermatozoideen mugikortasunean duten eraginari buruzko tesiarekin; eta Gizarte Zientzien arlokoa Ane Larrinagak, intelektual

eta kulturgileek gaur egungo gizartean jokatzeko duten paperaren inguruko tesiarekin.

## NUPEko ikasleen %40k ezagutzen du euskara

NAFARROAKO Unibertsitate Publikoan inkesta egin dute hainbat irakasleek, elebitasunaz bertako ikasleek duten iritzia jakiteko. %60ak uste du euskara ez dagoela normalizatua eta unibertsitatean hizkuntza horretan ematen diren irakasgaiak gutxi direla. Bestalde, ikasleen %40ak neurri batean edo bestean euskara ezagutzen du. Ikasleek zein hizkuntza ikasteko asmoa duten ere aztertu du inkestak eta ingelesaren oso atzetik (%60ak) euskara da bigarren aukera aipatuena (%28). Inkesta 2005-2006 ikasturtean egin zitzaizen unibertsitateko 2.048 laguni.

## BAHEA

Juan Uriagereka hizkuntzalaritzan doktoreak *Euskonews & Median* esanak: “Arazoa agerikoa da. Toki askotan esan dudana errepikatuko dut, euskararen gaia alde batera uzteko eta hori guztia beste ikuspegi batetik ikusten saiatzeko. Munduan milaka hizkuntza daude, beti egon izan diren moduan, eta oraindik ere badira. Baina jakin badakigu, egungo joera aldatzen ez bada, pare bat belaunalditan erdia desagertu egingo direla, eta lauzpabost mendetan ehuneko laurogeita hamarra seguruenik. Are gehiago, giza historiaren ehun eta piku mila urtetako hizkuntza-familien ikuspegitik begiratuta, dozena erditik bat edo bi geldituko dira: indoeuropar hizkuntza batzuk eta txineraren aldagai batzuk. Agian arabieraren dialektoren batzuk.?”

## TALAIAN

### HIRU eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia

Garraiolari autonomoen HIRU sindikatuak kalean eta gobernu erakundeen aurrean protesta egin du zehapen espedientearen diezaioten, bestela, sindikatuak desagertzeko arriskua baitauka. HIRUK gainerako sindikatuen babesa jaso du. Nork nahi du sindikatua desagertzea? Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren baitan dagoen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ireki zuen espedientearen eta erabakia hartzeko uztaila arteko astia hartu du. Zergatik? Zerbitzu horrek dio HIRUK delitu larria egin duela eta Lehiaren Defentsarako Legea urratu duela, eta beraz, 500.000 eta 10 milioi euro arteko zigorra proposatu du. Zigorra beteko balitz sindikatua desagertu liteke. Zein delitu egin du? 2008ko prentsaurreko batean HIRUK kalkulatu zuen erregaiaren prezio igoerari aurre egiteko eta garraiolarien lan baldintzak mantentzeko tarifak %5 igo behar zirela. Hala kalkulatu eta aholkatu zuen. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak espedientearen ireki zion.

Norentzat ari da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia? Auzitegi horrek ez du ezer egiten erregaiaren prezioetan lehiarik ez dagoelako, izan ere, gasolindegia guztiek prezio berberak dituzte. Telefono konpainien kontra ez du jotzen eta ez du espedienterik irekitzen soldadak moteltzeko aholkuak aireratzeko direnean. Beraz, ez da harrizkoa HIRUK pentsatzea auzitegi hori “sortua dela langile klasearen eskubideen kontra egiteko”. HIRUK babesten duen garraio ereduaren aurka ari da: garraio duina, zerbitzuengatik prezio zuzena kobratuko duena, eta garraiolariak ez dadila errepidean hil eta dezala inor hil. Inoiz gertatu ez dena lortu du auzitegiak: sindikatu guztiek HIRU babestea.

Juan Mari Arregi

Xabier Zabaltzak *Diario de Noticiasen* esanak: “Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 19ko akordio baten bidez hamasei udalerriren eta bi kontseiluren izen ofizialak zehaztu ditu. Udalaren eskariz, Gobernuak euskarazko izena, edo korporazioak euskarazkoa dela uste izan duena, ofizialdu du (...) Zenbait esparrutan uste denaren kontra, Azkoien –hartz goien, piedra alta gaztelaraz, nafar erroman-tzez pera alta zen moduan– ez da herri izen bat inondik ere, ezta kultura ere, baizik eta neologismo bat Julio Altadill (1858-1935) pertsonaia bitxiak asmatua (...) Nafarroan joera dugu gure bi hizkuntzen arteko harremana gatazka-rekin lotzeko. Euskarak izan behar du gaztelararen kontrako zerbaite, edo alderantziz. Baina askotan, ikuskera hori erabat oker dago. Gaztelarazko Mendigorria, Mendigorria da. Dakigula, inori ez zaio bururatu Monterrojo edo hobe, Montepelado bezala ofizialtzea. Modu berean, Peraltaren euskarazko izena Peralta da, eta ez Azkoien edo Arrigarai?”

## EAJ-PSE balizko gobernua: Ibarretxe nola gainditu?

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

**HAUTESKUNDE** kanpainaren azken txanpa abiatuta –kanpaina ofiziala–, etengabe emango den biolentzia giroaren agerle izan ziren D3Mren Bilboko manifestazio debekatua eta ondorengo istiluak. Legez kanporatutako ezker abertzalea, ilegaltzazioaren aurka eremu guztietan arituko dela erakusten ari da eta denak adierazten du



biolentzia giro horrek goraka egingo duela azken egun hauetan. Gainerakoan, aurrekusi bezala, lehia batez ere EAJren eta PSEren artekoa da, emaitza estuak iragartzen dira eta inkestek EAJri nagusitasuna ematen badiote ere, nahiko argi ageri da gobernua eratzeko orain arteko formulak ez direla baliagarriak izango. Formula berrietan dago koska, eta egunetik egunera EAJren eta PSEren arteko koalizioa da indarra hartzen ari dena. Balizko molde horrek Ibarretxe lehendakaria nola gaindituko duen, hori da bolo-bolo dabilena.

**HUGO CHAVEZEN** hamar urteko aginte jardunean 14 hauteskunde prozesu egin dira eta horietako gehienetan Chavezen jarraitzaileak aise gailendu zaizkie oposizioiko indarrei. Iragan igandean egindako erreferendumean %10eko tartea atera zion oposizioari eta horren ondorioz, herritarrek mugarik gabeko alditan hautatu ahal izango dituzte Venezuelako kargu instituzional zenbaitzuk, tartean Errepublikako lehendakaria. Bizitza osorako boterean mantendu nahi izana leporatu zaio Chavezari eta akaso egia izango da, baina bakarrik erdietsiko du hel-

burua herritarren botoak lortzen badiu. Europako Batasuneko 27 estatuetatik 17tan ez dago denbora mugarik agintarientzat, baina inori ez zaio bururatu “boterean mantendu nahi duten diktadoreei” buruzko akusaziorik egitea.

Salvador Allendek jarri zuen abian, 1970ean, hauteskunde bidezko iraultzaren bidea, 1973an Augusto Pinochetek zapuztua, AEBen laguntzarekin. 1998an iritsi zen Hugo Chavez boterera eta 2002an txiripaz atera zen onik AEBek bultzatutako estatu kolpetik. Harrez geroztik, bata bestea atzetik ugalduta dira ezker edo zentro-ekzkerreko indarren garaipena Hego eta Ertamerikan. Lula da Silvaren Brasil da ezkerrean zango aldaketak ikuspegi erreformista batetik bideratu nahi dituztenen gidari; aldaketa horiek ikuspegi iraultzailetik gauzatu behar dutela uste dutenena, Venezuela.

AEBen “atzeko patio” historikoaren matxinadak zer norabiderekin jarraituko duen ikusteko dago, kontraesanek eta oztupo ia gaindiezinez inguratua daude abentura honetan abiatu diren ia herrialde guztiak, baina beren bidea da eta beraiek jorratu beharko dute, beren moldera. Horixe da mendebal-

deko agintari eta indar politiko nagusientzat jasan ezina egiten dena, euren ikuspegitik atera litekeen demokrazia eredurik irudikatzea ezinezkoa baita.

Liderrarekiko kulturaren zantzuak ageri dira Hugo Chavezen jardunean, iraultza bolibartararen etorkizunarentzat arriskutsua izan daitekeena, eta sakonago aztertuta badira kritika-

garriak diren beste alor ugari ere; edozein modutan, hutsalak orain arte egin duen bidearen onuragarritasunarekin alderatuta. 2007ko abenduan berak bultzatutako Konstituzio berriari herritarrek ezetza eman ziotenean, bere gainbeheraren hasiera iragarri zuten askok, baina oraingo emaitzek iraultza bolibartarra sendo dagoela adierazten dute. 2004an Chavez kargugabetzeko erreferenduma behartu zuen oposizioak, legezkoa da hori Venezuelan, eta porrot handia jasan zuen: %59 Chavezen alde eta %40 aurka. Oraingo erreferenduma ezin da erabat alderatu 2004koarekin, baina 2007ko abenduko emaitzak eta oraingoak aztertuta, Chavezek 2004an baino sostengu txikiagoa duela pentsa liteke. Baina edozein modutan irakurrita, oso handia hala ere: 2006ko lehendakartzat hauteskundeetan bera botoen %62,84arekin atera zen hautatua eta oposizioiko buruak %36,9 lortu zuen. 2012an egingo dira lehendakartzarako hauteskundeak berriz ere, oposizioak beste hiru urte ditu garaipena prestatzeko. Ez dirudi, baina akaso aurkariak ezin dutena, krisiak eta petrolioaren prezio baxuek lortuko dute.